

1/1997 Foru Araua, urtarrilaren 22koa, zenbait nekazaritza-ustiategiri jagokon zerga-jaurpideari buruzkoa (BAO Otsailaren 6koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1997ko urtarrilaren 22ko Osoko Bilkuran, 1/97 Foru Araua onetsi dute, zenbait nekaz aritza-ustiategiri jagokon zerga-jaurpideari buruzkoa, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitaratu dadila agindu dut. Horren berri eman dut, foru arau hori aplikatu behar zaien herritar guztiek, norbanako nahiz agintari, hura bete eta betearazi dezaten.

Bilbon, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko urtarrilaren hogeita zortzian.

Diputatu Nagusia, JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

Nik, Pilar Arenales Barriosek, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkaria nazenez, ondorengo Egiatzatzen dot: 1997.eko urtarrilaren 22an izandako Batzar Nagusiak hurrengo hau erabaki ebala:

«Zenbait Nekazaritza-Ustiategiri jagokon Zerga-Jaurpideari buruzko urtarrilaren 22ko 97/1. Foru-Araua onartzea.»

Guzti hori jagokozan ondorenetarako egiatzatzen dot, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariaren On-Eritxiagaz,

ZENBAIT NEKAZARITZA-USTIATEGIRI JAGOKON ZERGA-JAURPIDEARI BURUZKO URTARRILAREN 22ko 97/1. FORU ARAUA.

Nekazaritzako Ustiapenen Modernapenari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legea nekazaritza modernatu eta hobetzeko asmoarekin aldarrikatu da.

Lege horrek, beste neurri batzuen artean, bere helburua lortzen lagunduko duten zerga neurriak jaso ditu.

Egia da lege horrek dakartzan zerga neurri guztiak ez direla nahitaez moldatu beharrekoak, indarrean dirauen Ekonomi Itunaren arabera. Hala eta guztiz ere, ez dago ukatzerik gure Lurralde Historikoko nekazaritza arloa beti erakundeen ikusmiran egon dela, bera hobetzen, modernatzen eta bultzatzen ahalegindu baitira. Horregatik, foru arau honen bitartez nekazaritza arloaren eraldakuntza bideratuko duten zerga-onurak ezarri dira.

LEHENENGO IZENBURUA LEHENTASUNEN NEKAZARITZA USTIAPENEN EZARRI AHAL ZAIZKIEN ZERGA-ONURAK

1. artikulua. Maileguak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketapeko hipoteka-maileguen eraketa, aldarazpena edo kitapena dokumentatzen duten eskritura publikoen lehenengo aldakiak Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko gradukako karga ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira, baldin eta mailegu horiek lehentasuneko ustiapenen titularrei ematen bazaizkie hobekuntza planak burutzeko, edo maileguaz finantzatuko diren eskuraketen bitartez lehentasunekoak izatera igaroko diren ustiapenen titularrei.

2. artikulua. Ustiapenaren eskualdaketa.

Bat. Kostubidez edo dohainik, «inter vivos» zein «mortis causa», nekazaritzako ustiapen oso baten jabari osoa nahiz biziarteko gozamina dagoeneko lehentasunekoa den edo eskuraketaren ondorioz lehentasunekoa izango den beste ustiapen baten titularrari eskualdatzen zaionean edo berak eskuratzen duenean, %90eko txikipena egin ahal izango da ustiapena edo haren elementuak eskualdatu edo eskuratzegatik ordaindu beharreko zergaren oinarrian, baldin eta eskuratzailaren ustiapenak eskualdaketa ondorioz lehentasunik galtzen ez badu. Ustiapenaren eskualdaketa herri eskrituran egin beharko da. Txikipena %100era igoko da ezkontide edo izatezko bikote aurrerabizitiarrak (azken hori maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutakoa) ustiapenari eusten badio.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondoretarako, nekazaritzako ustiapena osorik eskualdatu dela ulertuko da, etxebizitza hortik kanpora laga arren.

Bi. Txikipen hori egin ahal izateko, eskuraketa eskritura publikoan eta, egoki denean, Jabetzaren Erregistroan, ondokoa agertarazi behar da: finkak eskuratu eta hurrengo bost urteetan zehar besterenganatu, errentan eman edo lagatzen badira, ezinbesteko kasuetan izan ezik, aldeztu aurretik frogatu egin behar dela txikipenaren ondorioz ordaindu gabe utzi zen zerga edo zerga-zatia eta berandutza korrituak ordaindu direla.

3. artikulua. Zedarri bakarraren barruko ustiapena.

Bat. Lehentasuneko ustiapena osatzeko behar besteko azalera zedarri bakarraren barruan biltzearen lurra kostubidez edo dohainik, “inter vivos” edo “mortis causa” eskualdatu edo eskuratzen direnean, ez dago eskualdaketa edo eskuraketaren gaineko zergarik ordaindu beharrik. Beti ere, eskuraketari buruzko agiri publikoan agertarazi egin behar da emaitzazko finka bost urtez banaezina izango dela, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Bi. Nekazaritzako ustiapenen titularrek, lurra eskualdatu edo eskuratzen dituztenean, ustiapenaren azaleraren 100eko 50a gutxienez zedarri bakarraren barruan biltzeko egiten badute, euren ustiapenaren lan-unitateko errenta uztailaren 4ko 19/1995 Legean ezarritako mugen barruan egonik, lehentasuneko ustia-penatarako zerga-onurak jasotzeko asmoz, orduan 100eko 50eko txikipena egingo da eskualdaketa edo eskuraketaren gaineko zergaren oinarrian. Txikipena egin ahal izateko, banaezintasunari eta eskuraketa agiri publikoari buruz aurreko atalean azaldu diren beharkizunak bete behar dira.

4. artikulua. Ustiapenen eta landa finken eskualdaketa partziala.

Kostubidez edo dohainik, “inter vivos” zein “mortis causa”, landa finka baten edo nekazaritzako ustiapen zati baten jabari osoa nahiz biziarteko gozamina eskualdatu edo eskuratzen denean, baldin eta eskuratzaila lehentasunekoa izan edo eskualdaketa ondorioz lehentasuna hartuko duen beste ustiapen baten titularra bada, 100eko 75eko txikipena egingo da eskualdaketa edo eskuraketaren gaineko zergaren oinarrian. Zerga-onura hori ezarri ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko bidez egingo da, eta foru arau honen 2. artikulua “bi” atalean ezarri dena beteko da.

5. artikulua. Landa finken trukaketa.

Eskudun organoaren baimenez eta norberaren borondatez landa finka trukaketa ordaindu beharretik salbuetsita egongo da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren “kostubidezko ondare eskualdaketa” modalitatean edo Balio Erantsiaren gaineko Zergan. Beti ere, hori horrela izan dadin trukatzaila batek edo gehiagok lehentasuneko nekazaritza ustiapen baten titular izan behar dute eta eskritura publikoaren bidez burutu behar dute trukaketa, helburu hauetariko bat dutela:

- a) Barrendegi diren lurzatiak ezabatzea. Barrendegizat nekazaritzaren eraldaketa eta garapenari buruzko legeria orokorrean halakotzat jotzen diren lurzatiak hartuko dira.

- b) Bide zortasunak kentzea.
- c) Nekazaritzako ustiapenak berregituratzea. Lurzatiaren baterakuntza pribatuetan egiten diren trukaketa anizkoitzak ere balizko honetan sartzen dira.

6. artikulua. Erregistroko inskripzioa.

Jabari espedienteek, nabaritasun aktek eta, oro har, lehentasuneko ustiapenari baturik dauden finkek edo behin batutakoan ustiapena lehentasuneko bihurtuko dutenak Jabetzaren Erregistroan matrikulatzeko edo etenik dagoen erregistroari berriz ekiteko gainerako prozedura guztiek 100eko 90eko txikipena izango dute Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, "kostubidezko ondare eskualdaketa" modalitatean.

7. artikulua. Elkarte-ustiapenen ibilgetu materialaren amortizazioa.

...

8. artikulua. Egiatzapena.

Foru arau honetan ezarri diren zerga-onurak lortzeko, ustiapena lehentasuneko dela egiaztatu behar da, eskudun organoak eman beharreko ziurtagiriaren bidez.

BIGARREN TITULUA NEKAZARI GAZTEENTZAKO ZERGA-ONURAK

9. artikulua. Zerga-onura bereziak.

Bat. Kostubidez edo dohainik, "inter vivos" zein "mortis causa", nekazaritzako ustiapen, ustiapen-zati edo landa finka baten jabari osoa nahiz biziarteko gozamina eskualdatu edo eskuratzen denean, baldin eta eskurazailea lehentasuneko ustiapen batean lehenengoz instalatuko den nekazari gaztea edo nekazaritzako soldatapekoa bada, eskualdaketa edo eskuraketa hori kasuan kasuko zerga ordaindu beharretik salbuetsita egongo da.

Bi. Foru arau honen 2 eta 4. artikuluetan zerga oinarriari ezarri zaizkion txikipenak ehuneko hamar gehituko dira, kasuan kasu, eskurazailea nekazari gaztea edo nekazaritzako soldatapekoa bada eta eskualdaketa edo eskuraketa nekazari hori lehenengoz instalatu eta ondorengo bost urteen barruan egiten bada.

Hiru. Honen aurreko ataletan aurreikusi diren balizkoetan honako foru arau honen 2. artikulua berriz atalean ezarri dena aplikatuko da.

Lau. Egintza Juridiko Dokumentatuen kargatik aske egongo dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta dauden hipoteka maileguak eratzeko, aldarazteko edo kitatzeko egiten diren eskritura publikoen lehenengo aldakiak, agiriok lehentasuneko ustiapena lehenengo aldiz instalatzeko nekazari gazte edo nekazaritzako soldatapekoei ematen zaizkienean.

Bost. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan euren jardueraren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren bidez zehazten duten nekazari gazte edo nekazaritzako soldatapekoek lehentasuneko ustiapen baten titular moduan lehenengo aldiz instalatu eta hurrengo bost urteetako zergaldi itxietan 100eko 25ean txikitu ahal izango dute nekazaritzako jarduerari dagokiona; eragiketa hori uztailaren 4ko 19/1995 Legearen IV. kapituluaren ezarri denaren itzalpean eta baldin eta ustiapenaren hobekuntzarako plana egiten dihardutela benetakotzen badute gauzatuko da.

Honen aurreko lerrokadan adierazi den etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoa araupetzen duten arauen aplikazioaren emaitza hutsa izango da.

Atal honetan aurreikusi den txikipena kontuan hartuko da, hala denean, egin beharko diren ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehaztearen ondoretarako.

XEDAPEN ERANTSIAK

Lehenengoa. Definizioak.

Foru Arau honetan aurreikusi denaren ondoreetarako, Nekazaritzako Ustiapenen Modernapenari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legean bildu diren definizioak aplikatuko dira eta, beren beregi, ondoko hauek:

- Nekazaritzako jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta basoko produktuak lortzeko beharrezko diren lanen multzoa.

Era berean, foru arau horren ondorioetarako, nekazaritzako jardueratzat hartuko da nekazariak bere transformaziorik gabeko produkzioa zuzenean saltzea, ustategia osatzen duten elementuen barruan, udal merkatuetan edo merkataritzako establezimendu iraun-korrek ez diren tokietan.
- Nekazaritzako ustiapena: titularrak nekazaritzako jarduera burutzeko enpresa moduan jarduteko antolatzen dituen ondasun eta eskubideak; xede nagusia ekoizkinak merkaturatzea da eta, oro har, ustiapena unitate tekniko eta administratibotzat jo daiteke.
- Ustiapenaren elementuak: landalur izaera duten ondasun higiezinak edota era iraunkorrean nekazaritzako ustiapenerako aprobetxa daitezkeenak, besteak beste: etxebizitza eta nekazaritzarako gainerako atalak; nekazaritzako eraikinak eta instalazioak, industri izaera dutenak barne, eta ustiapenean integratuta eta hari lotuta dauden abereak, makinak eta tresnak, horien guztien aprobetxamendua eta ustiapena titularrari dagokionean, hala jabetza arau-bidean, nola errentan, erabilera edo gozamen eskubidean, edo, besterik ezean, jabeak eduki dituelako baino ez. Halaber, ustiapenaren elementuak dira titularrari egotz dakizkiokeen eta ustiapenari lotuta egon daitezkeen eskubide eta betebeharrak.
- Ustiapenaren titularra: ustiapenaren ondasunak eta eskubideak merkataritzako irizpideen arabera antolatu eta nekazaritzako jarduera burutzen duena, eta, aldi berean, ustiapenaren kudeaketatik erator daitezkeen arriskuak eta erantzukizun zibil, sozial eta fiskala bere gain hartzen dituena.
- Nekazari gaztea: nekazaritzako jarduera burutzen duen edo burutzeko asmoa duen pertsona, hamazortzi urtetik gorakoa baina berrogeira heldu ez dena.
- Nekazaritzako lan unitatea: nekazaritzako jardueran lansaio osoan aritzen den pertsona batek urte batean burutzen duen lana.
- Lan unitateko errenta: lan unitateari dagokion nekazaritzako ustiapenean sortu den ekonomi etekina; kopuru hori eskuratzeko egin behar den eragiketa ustiapenean jarduten duten nekazaritzako lan unitateen kopurua zati ustiapenaren margina garbia edo gairik gortu garbia gehi ordaindu diren soldaten zenbatekoaren emaitza da.

Halaber, "lehentasuneko ustiapenak" izango dira goian adierazi den legearen I. izenburuan aipatzen direnak.

Bigarrena. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren basogintzako ustiapenentzat dauden zerga-hobariak.

Idazkuntza berria eman zaio Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren 4. artikulua c) letrari; idazkuntza berria ondokoa da:

«c) Hazkunde moteleko espeziez baso-berritu diren titulartasun publiko edo pribatuko basoak. Salbuespen hau otsailaren 2ko 152/1996 Errege Dekretuaren 1, 2 eta 3. eranskinetan aipatu diren hazkunde moteleko espezieentzat da, horien aprobetxamendua nagusia zura edo kortxoak direnean;

halaber, zuhaitzen dentsitatea espezie horri dagokion arrunta edo ohikoa denean, salbuespena espezie horiek hartzen duten baso sailentzat ere bada.

Halaber, honen aurreko lerrokadan adierazi ez diren basoen kasuan, korporazio, erakunde eta norbanakoek egingo dituzten basoberriketak daudenean; gauza bera gertatuko da Baso Administrazioak onetsi dituen antolamendu proiektu edo plan teknikoei lotuta dauden basodiek. Lerrokada honetan aurreikusi den salbuespenaren iraupena hamabost urtekoa izango da, eskabidea egin den ekitaldiaren hurrengo zergalditik zenbatuta, alegia.”

Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergan zenbait landa finka eta nekazaritzako ustiapenen eskualdaketan dauden zerga-hobariak.

...

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

1998ko abenduaren 31ra arte lehentasuna izango dute lan unitateko errenta erreferentziako errenta baino 100eko 30 altuagoa eta erreferentziako horren 100eko 120a baino baxuagoa duten nekazaritzako famili ustiapenek, gutxienez nekazaritzako lan-saio erdia betetzen dutenean eta Nekazaritzako Ustiapenen Modernapenari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 4. artikularen 1. atalean ezarri diren gainerako beharkizunak betetzen dituztenean.

AZKEN XEDAPENA

Bat. Foru Arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 1995eko uztailaren 25etik ekarriko ditu ondoreak.

Bi. Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari baimena eman zaie foru arau hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 1997.eko urtarrilaren 2an.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

PILAR ARENALES BARRIOS

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

AITOR ESTEBAN BRAVO.